

Jusef Egiategiren filosofia liburuaz, bigarren tomoa

Oroitarazten dut liburu hau Frantses Erreboluzione handia baino lehen egina zela, lehen zatia berehala atzeman nuen nuen, baina bigarrena ez.

Euskara ez zekien batek Pariseko *Bibliothèque Nationale*an, Egiategiren liburua, azal batean jostekotan, bi zatitan eman zuen, lehena ontsa xahuki idatzia zen eta *La philosophie basque* izen arraroa ezarri zion, bigarren zatia zirriborro nahasia baitzen Gizpukoar kantu bilduma batean sartu zuen. Jadanik, Jean Philippe de Bela brigadier jeneralaren ingurukoa zela, aipatzen zuelako eta hark baitzion Larramendiren hiztegi eztabaidagarria prestatu; ageri da Jakes de Bela protestante zaharraren *Tablètes* delakoak ere irakurri eta zati franko euskaraz ezarri dituela. Bestalde Polonian eta Prusian gerlan ibili ondoan, *Filosofo Huskaldunaren libürian* jartzen du *Zuberoan errejent*, dela, aldiz oraino Parisen lotan den bi mintzairetakoa *Zuberoan kolegioko errejent* dela dio.

Bistan da ez zirela Euskal Herrian Argien Denborako, Ilustrazioko filosofoak irakurtzen ,baina airean ziren ideiek Egiategiz erreformista bat egin zuten. Bere denboraz kritika gogorrak egiten ditu. Bere liburuan gehienik nabarmentzen dena da *Gudarien edo soldadoen berezita* delakoan erraten baitu etsenplu anitzekin zer behar luketen izan soldaduak eta haien manatzaile aitzindariak, aldiz *Gerlaz* kapituluan, gerlaren kontra mintzatzeko da, egiten dituen kalte eta desmasiengatik eta erlijioak sortu gatazkak aipatzen eta gogorki kritikatzeko beren herritik kanpo gerla egiten duten frantsesak, latinezko formula bat erabiliz *Nullum berllum sine gallo*, armadak, bakoitzak bere herriaren defenditzeko baizik ez direla erabili behar.

Erlejionearen kapituluan tolerantziaren alde agertzen da, *Jinkoak nahi izan balü elizate erlijione bat baizik*, Luis XIV, Louis 14 delakoak protestanter egina gogorki salatzen du, denbora berean jesuitak akusatuz.

Hauek dira liburu horretan ediren daitezkeen perla ederrak, batzuetan bere filosofia sinplea irudituko zaio, Rousseauaren edo Kanten irakurle denari, baina orduko Euskal Herriaz eta euskaraz prosazko laiko liburu bakan eta bakantetan Egiategirenak baditugu.

Txomin Peillen

